



ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN

Arrasateko San Juan Taldea berrurbanizatzeko parte hartze prozesua

BIGARREN BILERA: BILERAREN AKTA

2023ko martxoak 29




Aurkibidea


Aurkibidea	2
1. Parte hartze prozesuaren ezaugarriak	Errorea! Laster-marka definitu gabe.
2. Saioaren ezaugarriak	4
3. Saioaren garapena	5
3.1. Lanketa taldeetan: zein proposamenekin egiten duzu bat? Zer da gehien gustatzen zaizuna? Zer hobetuko zenuke? Zer aldatu?	7
3.2. Elkar jartzea	Errorea! Laster-marka definitu gabe.

1. Saioaren kokapena

Saio parte hartzaileen bigarren bilera erronda da. Saio honetan lehen bilera errondaren deboluzioa egin da lehenik, eta bigarren zatian argitu gabe geratu diren puntuei buruzko ariketa egin da.



Horrekin batera, berrurbanizazio lanetarako aurreikusten diren epeak ere birgogoratu dira:



2023an partaidetza prozesua egingo da. Kontuan hartuta maiatzean udal hauteskundeak egongo direla, aurretik amaitu beharko da. 2024 urtea izango litzateke proiektua lizitatzeko eta behin betiko diseinua egiteko garaia eta lanak 2025 urtean hasiko lirateke.

2. Saioaren ezaugarriak

Hauek dira saioaren datuak:

Eguna: 2023ko martxoaren 29an, Arrasateko udaletxeko pleno aretoan.
Ordutegia: 18:00-20:00
Asistentzia: 37 lagun (18 emakume eta 19 gizon)

San Juan Taldeko 37 bizilagun

Arrasateko udaletik: Zinegotziak (Anuska Ezkurra Zubizarreta eta Ander Garai Zabaleta) eta udal arkitektoak (Aitor Jauregi Larrañaga eta Amaia Iriondo Alberdi)

Saioa bideratzen: Emun (Naia Rodriguez Casado eta Mikeldi Zeberio Loinaz)

3. Saioaren garapena

3.1. LEHEN BILERA ERRONDAREN SINTESIA

Saioaren lehen partean lehen bilera errondaren laburpena egin du Amaia Iriondok. Horretarako, bilera guztietan agertu diren adostasunak multzokatu ditu, eta seinalatu du zein puntuk behar duen oraindik garapen handiagoa.



Ideiarik azpimarragarriena da, oro har, adostasun handia dagoela bizilagunen aldetik, gehiago dira adostasuna bildu duten ideiak kontrakotasuna dutenak baino. Horretaz gain, adierazi behar da ez dagoela kontrakotasun nabarmenik jaso duen ideiarik.

Plaza guztietan uztartu nahi dira berdeguneak eta aparkalekuak, baina horrek aparkaleku kopuruetan eragina izango du eta gaurko saioaren helburua izango da kokatzea langa hori non jarriko den.

Horretaz gain, autoen norabideari buruzko zalantzak ere badaudenez, horiei buruz galdetuko da saioaren bigarren zatian eta baita Biteriren estatuarekin zer egin ere.

ALFONTSO X JAKINTSUA



- DAGOENETAN LAGA, BAINA KONPONDU
- ARGITERIA BERRITU ETA GEHITU
- PLATAFORMA BAKARRA, IRISGARRITASUNA
- ZUHATZAK BERE HORRETAN MANTENDU
- AZPIEGITURA GEHIAGO
 - TELEFONIA
 - TELEKOMUNIKAZIOAK
- BANKUAK / ZABOR ONTZIAK
- BITERIKO APARKALEKUAREKIN ERREZTASUNAK



- ESTATUA

SAN BIXENTE FERRER



- PLATAFORMA BAKARRA, IRISGARRITASUNA
- BEHE SOLAIRUAK BABESTU
- NORABIDE BAKARRA
- ARGITERIA BERRITU ETA GEHITU



- APARKALEKUAK
- KOKAPENA/KOPURUA

JOSE MARIA EGUREN



- BERDEGUNEAK ZUHATZAK GEHITU
- OINEZKOENDAKO ESPAZIOA
- ARGITERIA BERRITU ETA GEHITU
- PLATAFORMA BAKARRA, IRISGARRITASUNA
- ATARIEN IRISGARRITASUNA AZTERTU
- BEHE SOLAIRUAK BABESTU
- BIZIKLETA APARKALEKUA
- AZPIEGITURA GEHIAGO
 - TELEFONIA
 - TELEKOMUNIKAZIOAK
- ARGITERIA



- APARKAMENTUA

ZALDIBAR



- PLATAFORMA BAKARRA, IRISGARRITASUNA
- BEHE SOLAIRUAK BABESTU
- ARGITERIA BERRITU ETA GEHITU
- AZPIEGITURA GEHIAGO
 - TELEFONIA
 - TELEKOMUNIKAZIOAK

N



- APARKALEKUAK
- KOKAPENA/KOPURUA

IPARRAGIRRE



- BERDEGUNEAK ZUHATZAK GEHITU
- OINEZKOENDAKO ESPAZIOA
- ARGITERIA BERRITU ETA GEHITU
- PLATAFORMA BAKARRA, IRISGARRITASUNA
- BEHE SOLAIRUAK BABESTU
- BIZIKLETA APARKALEKUA
- AZPIEGITURA GEHIAGO
 - TELEFONIA
 - TELEKOMUNIKAZIOAK



- APARKAMENTUA
- IGOGAILUAK GARIBAI ALDERA

SAN JUAN ETXE MULTZOA



- PLATAFORMA BAKARRA, IRISGARRITASUNA
- BEHE SOLAIRUAK BABESTU
- BERDEGUNEAK ZUHATZAK GEHITU
- ARGITERIA BERRITU ETA GEHITU
- BIZIKLETA APARKALEKUA
- AZPIEGITURA GEHIAGO
 - TELEFONIA
 - TELEKOMUNIKAZIOAK



- APARKALEKUAK MURRIZTEKO MUGA
- NORABIDEA / ZIRKUTTOA
- ESTATUA

3.2. ELKARRIZKETA TALDE TXIKIETAN

Amaiaren azalpenen ondoren, informazioa banatu egin da eta tarte bat utzi da taldeetan hitz egiteko.



Ondoren, zalantzak argitzeko, galdera erantzunetarako tarte bat utzi da. Lehenik eta behin, bizilagun batek adierazi du Biteriko aparkalekuan baldintza bereziak izateko eskaera egin zela aurreko bileran eta horren erantzunik ezagutu gabe zaila dela aukeraketa egitea horrek baldintzatu dezakeelako jendearen posizioa.

Horretaz gain, autoek auzoan egin behar duten zirkuituari buruzko zalantzak agertu dira, eta azpimarratu da irteerak eta sarrerak oso estuak direla eta beldurrez pasatzen direla ez delako ikusten oinezkorik ote dagoen, eta baldintza horietan ezin dela oinezkoen segurtasuna bermatu, haurrena eta adineko pertsonena, bereziki.

Hori horrela, saioaren amaieran adierazi da bizilagun guztien segurtasuna bermatu behar dela, mugikortasun eta argiteria aldetik, beldurra pasatzen duten kolektiboak daudelako.

3.3. ARIKETA: AUKERAKETA


Udaletxeko pleno aretoko hallean 7 panel jarri dira eta bakoitzean galdera bat. Partaide bakoitzak aukeratu ahal izan du galdera bakoitzerako zer erantzun. Era berean, aukera egon da bestelako ekarpenak ere idatziz jasotzeko. Segidan daude galderak eta erantzunak:

3.3.1 Iparragirre plaza



Iparragirre plazan, 20 aparkalekuen aukera izan da gehien aukeratu dena, nabarmen.

3.3.2 JM Eguren plaza




JM Eguren plazan, 14 aparkalekuen aukera gailendu da. Idatzizko atalean badago oinezkoak babesteko eskaera bat.

3.3.3 Alfontso X plaza




Alfontso X plazan iritziak parekatuago daude, eta 25 eta 14 aparkalekuen artean kokatu dira erantzun gehienak. Gutxigatik bada ere, 25 aparkalekuren aukera izan da aukeratuena.

3.3.4 Bixente Ferrer kalea



Bixente Ferrer kalean ere parekatuta egon da, baina 17 aparkalekuak izan dira aukeratuena.

3.3.5 Zaldibar kaleko itzulbira




Zaldibar kaleko itzulbira nabarmena da aparkalekuak maximizatzearen aldeko hautua. Horretaz gain, iruzkinen atalean, ondokoa jaso da:

“Aparkalekuen gaia, kopurua zeharre baldintzatuta dago beste edonon aparkatzeko aukerarekin (Biteriko aparkalekua, adibidez).”


Esan behar da iruzkin honek ez diola itzulbira honi bakarrik erreferentzia egiten, San Juan Talde osoari baizik.

3.3.6 Biteriren eskultura



Biteren eskultura plazan mantentzearen aldeko iritzi asko egon da, nahiz eta aipagarria den ere badagoela kopuru handi bat ez dakiena zer egin eskulturarekin. Iruzkinen atalean, bi ohar egon dira: lehenengoak adierazten du ez duela nahi eskultura oztopo izatea plazaren birgaitzerako. Eta bigarren iruzkinak eskatzen du eskultura berritzeko.

3.3.7 Kotxeen ibilbidea



Autoen noranzkoa zehazteko zirkuitua egitearen alde agertu dira gehienak, baina zalantzak daude. Iruzkinen atalean ere, ekarpen ugari jaso da:

“Dugun zirkuitua mantendu” – *Bitan agertu da.*

“Utzi sar-irteerak daudenetan” – *Bitan agertu da*

“babestu oinezkoak bolardo edo bestelakoekin”

“Ezin da plaza bat hipotekatu, beste zerbait gehiago pentsatu”

“Uste dut behin betiko planteamenduak ikusi arte ezin dela bozkatu”

“Grupo San Juanera sartu baino lehen detektore bat jarri jakiteko plaza hutsak dauden edo ez”.

3.4. SANEAMENDUARI BURUZKO OHARRAK

Saioarekin amaitzeko, Aitor Jauregik saneamenduari buruzko hainbat ohar eman ditu. Funtsean azaldu du ez dagoela udalean informazio zehatzegirik egungo saneamendu sistema ezagutzeko. Bizilagun baten lanean oinarrituta, zalantzak daudela udalean dagoen informazioa egokia ote den ere. Bestalde, adierazi du udalak saneamendu-sare banakatu berria zoru publikoan egingo duela baina ezin duela zoru pribatuan egin beharreko lanik egin. Azaldu du badela udal-ordenantza bat bizilagunak derrigortzen dituen beraien saneamendurako loturak modu egokian egitera.

Horiek horrela, bi kontu ondorioztatu ditu:

- Urbanizazio proiektua kontratatzeko pleguetan zehaztuko dela aurretiaz egungo saneamenduaren azterketa xehatua egiteko beharra, proiektuan jasoko den sare berria ahalik eta egokiena izan dadin gero atari bakoitzaren lotuneak egiteko.

- Behin hori eginda, etxejabeen ardua izango dela sare berrira modu egokian lotzea, eta horrek kostua izango duela etxejabeentzat.

Herritarren aldetik agertu da kezka kostu horren inguruan. Eskatu da zehaztea zenbatekoa izan daitekeen kopuru hori. Erantzun zaie ezin dela kopurua zehaztu, kasu bakoitzean desberdina izango delako.

3.5. ITXIERA ETA BALORAZIOA

Saioari itxiera eman zaio eta gogorarazi da hurrengo bilera, eta prozesuko azkena, **apirilaren 19an izango dela, Kulturaten 18:00tan.**

Hau da saioak jaso duen balorazioa parte hartzaileen aldetik:



Horretaz gain, iritzien atalean, ondoko iruzkina jaso da:

“Horrelako dinamikak atsegin ditudan arren, frustrantea iruditzen zait erabakitzeke dugun eskumen urria”.